

Bizkaiko enpresa enblematiko gisa**EROSKI-REN PLATAFORMA LOGISTIKOA
BISITATZEN IZAN DIRA BIZKAIAN
AKREDITATUTA DAUDEN KONTSULAK**

- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak erakundeen topaketa bat antolatu dute, eta hori dela medio egin dute bisita
- Egoitza ikustera joan direnean, interesgarria iruditu zaie zenbaterainoko optimizazio logistikoa lortu den plataforma automatizatuta eta nola hobetu den barne prozesuen efizientzia

Elorrio, 2020ko martxoaren 4a.- Bizkaian akreditatuta dauden kontsulen ordezkari bat bisitan izan da, [EROSKI](#) Elorrioren dituen egoitza eta plataforma ikusten. "Kontsulen Erakunde Arteko Topaketa" tradizionalaren harira egin dute bisita. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak antolatzen dute topaketa hori, erakundeen harremanak indartzeko eta merkataritzaren eta administrazioaren loturak sendotzeko. Horren barnean sartzen da Bizkaiko enpresa enblematiko batera bisita egitea; kasu honetan EROSKIra.

EROSKIko presidente Agustin Markaidek harrera egin dio hemezortzi kontsuleko batzorde bati taldearen egoitzan; batzordearen buru Letoniako Iñigo Gomez Bilbao jauna egon da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batez lagunduta joan dira. Ondoren, bisita bat egin diote plataforma logistikoari, eta bertatik bertara ikusi ahal izan dituzte kooperatibak robotizazioaren eremuan aplikatuak dituen abangoardiako irtenbideak; besteren artean, eskariak dendan prestatzearena. Egoitza ikustera joan direnean, diplomatikoei interesgarria iruditu zaie zenbaterainoko optimizazio logistikoa lortu den plataforma automatizatuta eta horrekin batera nola hobetu den barne prozesuen efizientzia.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.638 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)